


**DNA - 2023**

**Sorkuntza eta/edo  
ikerketako egonaldien  
programa - 2023**



|       |  |         |
|-------|--|---------|
| 01-   | Aurkezpena   | 03. or. |
| 02-   | Helburuak  | 04. or. |
| 03-   | Pertsona eta erakunde onuradunak;<br>profesionalak eta nafarrak direla egiaztatzea | 04. or. |
| 04-   | Egonaldien ezaugarriak   | 05. or. |
| 05-   | Eskaerak aurkezteko lekua eta epea   | 07. or. |
| 06-   | Aurkeztu beharreko dokumentuak   | 08. or. |
| 07-   | Hautaketa prozesua eta balorazio irizpideak  | 09. or. |
| 08-   | Egoitzak aukeratzea eta<br>kontratua formalizatzea                                 | 10. or. |
| 09-   | Ordaintzeko modua  | 11. or. |
| 10-   | Aukeratutako profesional<br>edo erakundeen betebeharrak                            | 12. or. |
| 11-   | Jabetza intelektuala   | 13. or. |
| 12-   | Irudi eskubideak   | 14. or. |
| 13-   | Datu pertsonalen babesa  | 14. or. |
| 14-   | Oinarri hauen onarpena   | 16. or. |
| <hr/> |  |         |
|       | I Eranskina  | 18. or. |
|       | II Eranskina   | 22. or. |
|       | III Eranskina  | 25. or. |


## Dantza lurraldean



**Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiak antolatutako programa artistiko bat da DNA, Baluarte Fundazioarekin lankidetzan, eta dantza garaikidea eta mugimenduaren arteak sustatzea du helburu.**

**DNAren barruan sorkuntza eta/edo ikerketako egoitza artistikoen programa aurkezten dugu Nafarroako profesionalentzako edo Nafarroarekin lotura dutenentzako profesionaleri zuzendua. Lau egonaldi proposatzen dira eta Nafarroako Antzokien Sareko espazio eszenikoetan garatuko dira.**


**Lau astetan zehar sorkuntza prozesuak egingen dira, etorkizuneko ekoizpenen iturri izanen direnak. Halaber, hausnarketarako eta komunitaterako guneak sortuko dira, eta ekintzak gauzatuko dira Nafarroako ikusleekin, zeinetan dantza garaikidea izanen baita protagonista.**



## Helburuak

Sortzeko eta/edo ikertzeko lau egonaldi proposatzen dira Nafarroako edo Nafarroarekin lotutako dantzaren arloko profesionalentzat, izan pertsona fisikoak izan pertsona juridikoak. Helburuak honako hauek dira: dantza garaikideko proiektuen sorkuntza sustatzea; lurraldean dantza eta mugimenduaren arteak bultzatzea; publikoarekiko bitartekaritza lantzea, diziplina horietarako ingurune positiboa sortze aldera; parte hartzen duten artisten artean komunitate sortzailearen espiritua bultzatzea; eta sektorearen barruan enplegua sor dadin sustatzea.

Egonaldi horietatik ateratako sortze proposamenak 2024ko DNAn estreinatuko dira.



## Pertsona eta erakunde onuradunak; profesionalak eta nafarrak direla egiaztatzea

Programa honetako egonaldietan parte hartzen ahalko dute dantzaren eta mugimenduaren arteen arloko profesionalak diren Nafarroako pertsona fisiko eta juridikoak.

**3.1. Pertsona fisiko eta juridikoek ekonomia-jardueren gaineko zergan (EJZ) alta emanda egonik egiaztatuko dute profesionalak direla<sup>1</sup>.**

<sup>1</sup> Ekonomia-jardueren gaineko zergaren epigrafe hauetako batean alta emanik egotearen frogagiria (egoki den udalak emana):

1. atala (enpresa jarduerak): 965. taldea.

2. atala (jarduera profesionalak): 85. multzoa.

3. atala (jarduera artistikoak): 1., 2. edo 3. multzoak.


Garrantzitsua: agiri hau eskatuko da baldin eta jakinarazi bada proiektua hautatu dela sorkuntza eta/edo ikerketa egonaldirako (ikus 6. puntua)

03. **Pertsona eta erakunde onuradunak;  
profesionalak eta nafarrak direla  
egiaztatzea**

**3.2. Deialdi honen ondorioetarako, honako kasu hauetan egiaztatuko da nafar izaera edo Nafarroarekiko lotura izatea:**

- **Pertsona fisikoak:** Nafarroan jaio dela egiaztatzen duen NANaren kopia, proiektua aurkezten den uneko bizileku-ziurtagiriaren bidez edo, halakorik ezean, haien prestakuntza frogatuz edo Nafarroan gutxienez bi urtez lan egin izana frogatuz, edo proiektua berariaz Foru Komunitatearekin eta/edo haren artistekin lotuta egotea.
- **Pertsona juridikoen kasuan,** berriz, egoitza soziala Nafarroako Foru Komunitatean izan beharko dute, eta/edo jarduera bertan egiten dutela egiaztatu, gutxienez ere 2022ko urtarrilaren 1etik.

2022ko egonaldien onuradunak ezin izanen dira 2023ko ediziora aurkeztu.



## **Egonaldien ezaugarriak**

**01. DNA egonaldiak**

Programa honen ondorioetarako, egonaldiak izanen dira Nafarroako Antzokien Sareko kultura ekipamendu batekin lankidetzan egiten diren proiektu guztiak. Hartara, ekipamenduak aurreikusitako lan profesionala gauzatzeko behar dituen baliabideak utzi beharko dizkio egonaldia eginen duen taldeari lau astez, apiriletik irailera, (aste horiek ez dute zertan ondoz ondokoak izan), planteatutako helburuak betetzeko eta baliabideak aprobeztatzeko behar den denboraz (lanaldi baten baliokide). Halaber, egonaldiko proiektuak gizarte sarearekin harremanetan egonen den dibulgazio lana aurreikusi behar du, eta, horrez gain, publiko berriak sortzea edo ekipamenduaren programazioan parte hartzea sustatu.


## 04. Egonaldien ezaugarriak

- 02. Zuzkidura ekonomikoa:** egonaldiek 6.000 edo 8.000 euroko (gehi BEZa) zuzkidura ekonomikoa izanen dute, horiek gauzatzeko esleitutako kultura ekipamenduaren kokapenaren arabera. Hau da, kultura bere adierazpen guztietan lurralde osoan ekitatiboki banatzearen aldeko diskriminazio positiboa ezartzeko asmoz, 3. LAParen (10.3 eta 10.4 azpieroak)<sup>2</sup> administrazio eremutik at eginen diren egonaldiek 8.000 euroko (gehi BEZa) zuzkidura izanen dute; azpiero horietan egiten direnek, berriz, 6.000 €-ko zuzkidura (gehi BEZa).
- 03. Bitartekaritza:** aurkeztutako proiektu guztiek bitartekaritza proiektu bat izan beharko dute, proiektuaren egoitza izanen den espaziorako lehentasunezkoak diren erakundeekin edo kolektiboekin lan egiteko.
- 04. Jarraipena:** Kultur Ekintza Zerbitzuko talde tekniko batek eginen du haututako proiektuen jarraipena. Halaber, sektoreko pertsona batek sorkuntzari lagunduko dio, proiektuen garapena eta bilakaera ezagutzeko asmoz eta irailerako aurreikusitako amaiera ekitaldian proiektu bakoitza gainerakoekin harremanetan jarri ahal izateko gakoak aurkitze aldera. Jarraipena aukeratutako proiektuen ezaugarrien arabera antolatuko da.
- 05. Dokumentazioa:** sortze prozesu guztiak bideo batean jasoko dira, bai prozesuak bai programa oro har dokumentatzeko. Aukeratutako konpainiak profesionalekin lankidetzan aritu beharko dira bideo hori egiteko, beraien sortze prozesuaren lekukotza grafikoa izan dadin.
- 06. Komunikazioa:** egonaldietako sortze prozesuak zabalduko dira hedabideetan eta sare sozialetan. Horretarako, talde profesional egokia egonen da; hautatutako erakunde juridikoak lankidetzan arituko dira talde horrekin, bakoitzaren lana eta, oro har, programa behar bezala zabaldu eta sustatzeko.

---


<sup>2</sup> Udalerrri hauetan kokatutako Nafarroako Antzoki Sareko espazioei eraginen die. 10.3 azpieroak: Antsoain, Aranguren, Barañain, Beriain, Berribeiti, Berriozar eta Burlata. 10.4 azpieroak: Uharte, Noain Elortzibar, Atarrabia eta Zizur Nagusia.

# Eskaerak aurkezteko lekua eta epea



Eskabideak eta eskatutako dokumentazioa helbide elektroniko honetara bidaliko dira: [programasydifusion@navarra.es](mailto:programasydifusion@navarra.es); edo, bestela, Iruñeko Navarrería kalea 39 helbidean dagoen Erregistro Bulegoan aurkeztuko dira<sup>3</sup>, edo, instantzia orokorra erabilita, Nafarroako Gobernuaren Erregistro Elektronikoaren bidez.


Eskabideak aurkezteko epea 20 egun naturalekoa izanen da, "Sorkuntza eta/edo ikerketako egonaldien programa - 2023" programa Nafarroako Gobernu Kulturearen [www.culturana Navarra.es](http://www.culturana Navarra.es) web-orrian argitaratzen den egunetik hasita.



---

<sup>3</sup> Coviden arrazoiengatik erregistroan aurre zita eskatu behar da telefono zenbaki honetara deitzen: 848 424 650.


# Aurkeztu beharreko dokumentuak



01. Proiektua aurkezten duen pertsona fisiko edo juridikoaren izena eta harremanetarako datuak.
02. Pertsona fisiko edo juridikoaren foru izaera egiaztatzen duen dokumentazioa (oinarrietako 3.2 puntuaren arabera).
03. Proiektua hautatzen bada, EJZ eguneratua aurkeztu beharko du, hautaketa jakinarazi eta zazpi eguneko epean. Baldintza hori eguneratuta izan beharko da egonaldiak dirauen bitartean.
04. Curriculum vitae edo konpainiaren ibilbidea.
05. Sorkuntza edo ikerketa proiektuaren memoria. Originala izanen da eta hauek jasoko ditu, besteak beste: proiektuaren izena, deskribapena, helburuak, taldearen osaera, lan ereduak, proiektuaren kronograma, lankidetzarik izanen den, bitartekaritza proiektua, egonaldiaren emaitza erakusteko formatua...

Eskabidea eta dokumentazioa deialdiari atxikitako I., II. eta III. eranskinen arabera aurkeztu behar dira.






# Hautaketa prozesua eta balorazio irizpideak

**Aurkeztutako proiektuak Ebaluazio Batzorde batek baloratuko du. Batzorde hori hauek osatuko dute: dantzarekin edo mugimenduaren arteekin lotutako proiektuen kudeaketan aditu batek eta Nafarroako Antzokien Sareko espazioen kultura kudeaketaz arduratzen den profesional batek, baita Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiaren eskutik, Kultur Ekintza Zerbitzuaren zuzendariak eta Programa Artistikoen eta Hedapenaren Ataleko buruak ere. Programa Artistikoen eta Hedapenaren Ataleko kulturako goi mailako teknikari bat arituko da idazkari lanetan.**

**Honako hauek dira sorkuntza eta/edo ikerketa egonaldietarako Ebaluazio Batzordeak ebaluatuko dituen irizpideak:**

- Proiektuaren balorazioa (50 puntu bitarte). Proiektu hauetan 25 puntu gutxienez lortu beharko dituzte atal honetan hautatuak izateko.**
- Bitartekaritza proiektuaren balorazioa (25 puntu bitarte).**
- Proiektuaren bideragarritasuna eta koherentzia ekonomikoa (15 puntu bitarte).**
- Programan profesional artistiko eta teknikoek parte hartzearen balorazioa (10 puntu bitarte).**




# Egoitzak aukeratzea eta kontratua formalizatzea

Aukeratutako proiektuek ebaluazio prozesuan lortutako puntuazioaren ordenari jarraikiz hautatuko dute proposatutako espazioen artean lana zein egoitzatan gauzatu nahi duten.


Proiektuak eta egoitzak binatzeko prozeduran, kontuan izanen dira parte hartuko duten alde guztien iritziak. Hain zuzen, prozedura hau izanen da:

1. Lortutako puntuazioaren eta hautagaiek eskabidearen I. eranskinean adierazitako lehentasunaren arabera hautatuko da egoitza.
2. Hori hala izanik ere, Kultur Ekintza Zerbitzuak parekatzeak landuko ditu lurraldearen arteko oreka eta egokitasuna kontuan hartuz.
3. Egonaldiak eman ondoren, Kultura Ekintzako Zerbitzuak egoitzetako arduradunekin berrikusiko ditu proiektu bakoitzaren datak eta baldintza espezifikoak, egonaldia hasi baino lehen.
4. Onuradunen batek kontratua formalizatu baino lehen egonaldiari uko egiten badio, berriz ere eskaini ahal izanen da libre geratutako egonaldi hori, lortutako puntuazioaren ordenaren arabera.
5. Aukeratutako proiektuak aurkeztu dituzten konpainiek edo profesionalak kontratu bat sinatuko dute Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiarekin. Agiri horretan zehaztuko dira egonaldien baldintzak, oinarri hauetan jasotzen diren eta hartuko dituzten kultura espazioen ezaugarrien arabera.


# Ordaintzeko modua



Egonaldia hasi eta astebetera, profesionalek ordura arte eginiko lanaren memoria bat aurkeztuko diote Kultur Ekintza Zerbitzuari, eta, dagokion faktura aurkeztuta, egonaldi bakoitzari emandako zuzkidura ekonomikoaren % 50 ordainduko zaie. Zuzkidura ekonomikoaren gainerako zenbatekoa proiektua amaitu eta faktura eta proiektu amaierako memoria aurkeztu ondoren jasoko dute. Memoria horrek Kultur Ekintza Zerbitzuaren aldeko ebaluazioa jaso beharko du.



- Proiektu amaierako memoria egonaldia amaitu eta hilabeteko epean aurkeztu beharko da gehienez, eta lan prozesuaren dokumentazio osoa bilduko du: hasierako fasea, lan metodoa, lan prozesua, bitartekaritza prozesua, amaierako erakusketa eta ondorioak.
- Amaierako memoriari generoari buruzko memoria bat erantsiko zaio. Memoria horretan, sexuaren arabera banatuta agertuko dira proiektuaren taldea osatzen duten pertsonak, bitartekaritza prozesuan parte hartu dutenak eta azken lagineko zati direnak.



# Aukeratutako profesional edo erakundeen betebeharrak

- Egonaldia hasi aurretik ezarritako baldintzak betetzea, ordutegiari, egutegiari eta beste konpromiso batzuei dagokienez.
- DNA egonaldi programan eskatutako agiriak aurkeztea eta agiriaren puntu guztiak betetzea.
- Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiak eskubidea izanen du artisten partaidetzaren berri emateko egonaldia egin baino lehen, egonaldiak iraun bitartean eta egonaldia egin ondoren.
- Aukeratutako artistek eta konpainiek Kultur Ekintza Zerbitzuak programa hedatzeko asmoz sustatutako jardueretan hartuko dute parte.
- Parte hartzaileek Nafarroako Gobernuaren logotipoa sartu beharko dute aukeratutako proiektua sustatzeko erabiltzen diren euskarri guztietan.
- Jarraipena eginen duen pertsonari, dokumentalistari eta komunikazio taldeari laguntzeko lanak erraztea eta egonaldietan parte hartzen dutenen arteko bitartekaritza kolektiboko ekintzetan parte hartzea.
- Nafarroako Gobernuak langileei programa betetzeko jarraipen lanak erraztea.

# Jabetza intelektual

Parte hartzaileek beren erantzukizunpean aitortzen dute aurkeztutako proiektuaren sorkuntza intelektual beraiena bakarrik eta erabat originala dela.


Proiektuak jabetza intelektualeko eskubideren baten menpeko obra edo prestazio intelektualak baditu, parte hartzaileek aitortu eta bermatu egingen dute badituztela baimenak horiek erabiltzeko egonaldi programa honetan, ezarritako helburu guztietarako.

Bakarrik parte hartzaileei dagokie aurreko paragrafoetan ezarritakoa urratzeagatik eskatzen ahal diren erantzukizun guztiak onartzea, eta, beraz, beren gain hartuko dute hirugarrenen aurrean gertatzen ahal diren zeinahi erreklamazioen ardura.


Aukeratutako proiektuak aurkeztu dituzten parte hartzaileek lagapen ez-esklusibo bat emanen diote Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiari, mundu mailakoa eta legeak baimentzen duen gehienezko eperako, proiektua garatzean sortutako idatzizko edukien, ikus-entzunezko edukien, eduki grafikoaren edo beste zeinahi motatako edukiren gainean.

Lagapen horretatik kanpo geratuko dira edukien erabilera komertzialak, eta lagapena Zuzendaritza Nagusiak bere jarduerak jakinarazi eta sustatzeko ekintzak egitera mugatuko da, edozein hedapen bitartekotan edo euskarritan, baita online ere.


## Irudi eskubideak



Aurreko atalean ezarritakoa bete ahal izateko, aukeratuek onartu eta baimendu egiten dute egonaldi artistikoak eginen diren espazioetan hartutako beren itxura fisikoaren irudiak, ahotsa eta izena, hala badagokio, edozein motatako euskarri fisiko eta digitaletan (bideoak, argazkiak, kartelak...) agertzen ahal direla informazio edo sustapen helburuetarako. Hala ere, salbuetsita eta mugatuta geratuko dira ohorerako, intimitaterako eta norberaren irudirako eskubidearen aurka egiten ahal diren erabilerak edo aplikazioak, maiatzaren 5eko 1/1982 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera.




## Datu pertsonalen babesa



DNA egonaldi programan parte hartzen dutenek eta Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiak hitzematen dute une oro errespetatuko dutela datuak babestearen arloan indarrean dagoen araudia hautaketa prozedura honen testuinguruan, batik bat hauek: 2016/679 Erregelamendua, 2016ko apirilaren 27koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa (DBEO), eta 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa (DBEDBLO).

Arduraduna: Kultura eta Kirol Departamentua.  
Harremanetarako: [dpd@navarra.es](mailto:dpd@navarra.es)



**01. Xedeak**

Egonaldi programan parte hartzeko eskaerak kudeatzea eta egonaldiez gozatuko duten hautagaitzak aukeratzea (besteak beste: espedientearen kudeaketa, kontabilitatea eta zerga, gardentasun eta kontrol betebeharrak betetzea).

**02. Iraupenaldia**

Egonaldiez gozatuko duten hautagaitzak aukeratzeko beharrezkoa den denborara mugatuko da, eta aukeratutako hautagaitzen kasuan, egonaldiak irauten duen bitartean ere egonen da indarrean. Bi kasuetan, blokeo egoeran izanen dira egonaldi programaren ondoriozko ekintza zibil, penal, administratibo edo beste edozein motatakoen preskripzio epeetan.

**03. Hartzaileak**

Ez zaizkie datu profesional pertsonalak hirugarrenei lagako, salbu legezko betebeharra badago. Aukeratutako hautagaitzen kasuan, izen-abizenak eta proiektuen izenburuak publikoki ezagutaraziko dira [www.culturavarra.es/eu](http://www.culturavarra.es/eu) webgunean. Gainera, Zerga Agentziara eta gainerako administrazioetara ere bidaliko dira, gardentasun, kontrol eta zerga betebeharrak betetzeko, baita finantza erakundeetara, kobrantzak eta ordainketak kudeatzeko, eta agintari judizialek ere.

**04. Legitimazioa**


Interesdunaren adostasuna, eta, aukeratutako hautagaien kasuan, egonaldia onartzearen ondoriozko kontratuzko harremana gauzatzea.

**05. Eskubideak**


Eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, eramateko, mugatzeko eta aurka egiteko eskubideak gauza daitezke mezu elektronikoko bat bidalita [programasydifusion@navarra.es](mailto:programasydifusion@navarra.es) helbidera. Eskatzailea identifikatu behar izanen da agiri ofizialaren bitartez.

DNA egonaldi programan parte hartzen dutenek bermatzen dute helarazitako datuak zehatzak direla eta eguneratuta daudela. Horrela ez bada, Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiari jakinarazi beharko dizkiete. Bestelako errekurtsioak aurkeztea gorabehera, interesdunek eskubidea izanen dute, baita ere, erreklamazio bat aurkezteko kontrol agintaritzaren aurrean (Datuak Babesteko Espainiako Agentzia).

# Oinarri hauen onarpena



Deialdi honetan parte hartzen dutenean, parte hartzean, osorik onartzen dituzte oinarrietako atal guztietan ezarritako baldintzak.







**I, II eta III  
eranskinak**



**DNA -2023**

**Sorkuntza eta/edo  
ikerketako egonaldien  
programa - 2023**

# I. Eranskina

## Eskabide eredua

Izen-deiturak

\_\_\_\_\_ jn./and.

NANa/IFZ

Helbidea

Kalea

P.K.

Telefono zenbakia

Helbide elektronikoa

Bere izenean

Honako hau ordezkatzuz

Entitatea

NANa/IFZ

Helbidea (herria)

Kalea

P.K.

Telefonoa

Helbide elektronikoa

**Aurkezten du  
2023ko DNA egonaldien programan parte hartzeko  
eskabidea**

**Nora  
Programa artistikoen eta hedapenaren atala**

Hauta itzazu Nafarroan Antzoki Sareko koadroan proposatzen  
zaizkizun egoitzen artetik bost, lehen-tasun-hurrenkeraren arabera<sup>4</sup>:

| Egonaldia 3. LAP <sup>5</sup> eremuan<br>Zuzkidura: 6.000 euro gehi BEZa. |  |                                      | Egonaldia 3. LAP eremutik kanpo<br>Zuzkidura: 8.000 euro gehi BEZa. |   |                                       |
|---|--|--------------------------------------|---|---|---------------------------------------|
| Egoitzak  | Gutxi gorabeherako datak   | Markatu lehen-tasun-ordena 1etik 2ra | Egoitzak  | Gutxi gorabeherako datak  | Markatu lehen-tasun-ordena 1etik 5era |
| Noain   | 06/01etik 06/30era<br>08/01etik 08/31ra<br>09/01etik 09/30era  |                                      | Agoitz  | 04/17tik 04/30era<br>05/01etik 05/31ra<br>09/01etik 09/30era                      |                                       |
| Zizur Nagusia   | 06/12tik 06/30era<br>07/03tik 07/31ra<br>08/01etik 08/31ra<br>09/01etik 09/12ra<br>09/18tik 09/30era |                                      | Etxarri Aranatz   | 05/15etik 05/30era<br>06/19tik 06/30era<br>07/01etik 07/31ra<br>09/11tik 09/30era |                                       |
|   |  |                                      | Leska   | 07/01etik 07/31ra<br>08/01etik 08/31ra<br>09/01etik 09/30era                      |                                       |
|   |  |                                      | Ribaforada  | 05/01etik 05/31ra<br>06/01etik 06/30era   |                                       |
|   |  |                                      | Zangoza   | 08/01etik 08/31ra   |                                       |

<sup>4</sup> Egoitzak eta hautatutako proiektuak binatzeko, 2023ko DNA egonaldi programaren 8. puntuko jarraibideak beteko dira. Proposatutako espazioak eta datak aldatzen ahal dira.

<sup>5</sup> LAP (Nafarroako Lurralde Antolamenduko Plana) eremua: Jarraian datozen udalerrietako Nafarroako Antzokien Sareko espazioei eraginen die: 10.3 azpierenua: Antsoain, Aranguren, Barañain, Beriain, Berriobeiti, Berriozar eta Burlata. 10.4 azpierenua: Uharte, Noain Elortzibar, Atarrabia eta Zizur Nagusia.

2023ko DNA egonaldi programan ezarritakoarekin bat:

01. Haietan agindu bezala, agiri hauek aurkezten ditu:
  - a) Pertsona fisiko edo juridikoaren foru izaera egiaztatzen duen dokumentazioa (oinarrietako 3 puntuaren arabera).
  - b) Eskatzailearen IFZ edo IFK agirien kopia.
  - c) Curriculum vitae edo pertsona juridikoaren ibilbidea.
  - d) Proiektuaren memoria exekutiboa, II. eranskineko ereduaren arabera.
  - e) Proiektuaren datu ekonomikoak, III. eranskineko ereduaren arabera.
02. 2022ko egonaldien onuradunak ezin izanen dira 2023ko ediziora aurkeztu.
03. Proiektuen Ebaluazio Batzordeak azalpenak eskatzen ahal ditu, hala mezu elektronikoz nola aurrez aurre.
04. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2 artikuluan xedatutakoari jarraikiz, eskaera aurkezteak berekin dakar interesdunak organo kudeatzaileari baimena ematea Zerga Administrazioko Estatu Agentziak, Nafarroako Zerga Ogasunak eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak luzatu beharreko ziurtagiriak.
05. Hautatutako proiektuen arduradunek beren ardurapean adierazten dute aurkeztutako proiektua sorkuntza intelektual propiokoa eta erabat originala dela. Proiektuak jabetza intelektualeko eskubideren baten menpeko obra edo prestazio intelektualak baditu, parte hartzaileek aitortu eta bermatu egingen dute badituztela baimenak horiek erabiltzeko egonaldi programa honetan, ezarritako helburu guztietarako.
06. Hautatutako proiektuen arduradunek onartu eta baimendu egingen dute, hala badagokio, beren irudi fisikoa, ahotsa eta izena mota guztietako euskarri fisiko eta digitaletan agertzea (bideoak, argazkiak, kartelak eta abar), ezagutarazteko edo sustatzeko helburuarekin, betiere norbanakoaren ohorearen kontra joaten ahal diren erabilera eta aplikazioak saihestuz eta horiek mugatuz, legeak ezarritako baldintzetan.

07. Programa honetan parte hartzeak berarekin dakar oinarri hauek guztiak betetzea eta onartzea.

\_\_\_\_\_ (e)n, 2023ko \_\_\_\_\_ aren \_\_\_\_\_ (e)(a)n

(Sinadura)  
Izen-deiturak \_\_\_\_\_

Nafarroako Gobernua. Kultura eta Kirol Departamentua

## II. eranskina: Proiektuaren deskripzio-memoria

### Memoria egiterakoan kontuan hartu beharrekoak:

- Dokumentazioa paperean edo euskarri digitalean aurkeztu behar da.
- Eranskin honen puntuetan ezarritako hurrenkerari jarraituko zaio.
- Orrialdeak zenbakiturik aurkeztuko dira.
- Atal guztiak bete eta behar diren egiaztagiria aurkeztu behar dira.
- Hutsik dauden atalak edo justifikatzen ez direnak ez dira baloratuko.

### Proiektuan honako hauek jasoko dira:

01. Izena.
02. Memorian xehe-xehe jaso beharko dira honako hauek: proiektuaren deskripzio xehakaturia, aurreikusitako ekintzak, lanerako metodologia, DNA programarekin lotutako helburuak eta sorkuntza eta/edo ikerketa proiektuaren helburuak, kronograma, taldearen osaera, bitartekaritza proiektua, egonaldiko azken erakusketaren proiektua eta deialdi honetan baloratuko diren gainerako alderdiak. Memoria Din A-4 neurriko 10 orritan eginen da gehienez ere, alde batetik idatzirik (edo 5 orri, bi aldeetatik). Hartara, gutxienez ere 11 puntuko letra tamaina erabiliko da, eta tipografia konbentzionala.
03. Aurrekontua: proiektuaren aurrekontu osoa aurkeztu beharko da, eta bertan argi geldituko da koherenteak direla enpresak edo profesionalak proiektuari aurre egiteko dituen baliabide ekonomikoak (diru-sarrerak eta gastuak), giza baliabideak (bazkideak, kontratatzen diren langileak) eta baliabide materialak (azpiegiturak). Aurrekontuaren deskribapena III. eranskinetako ereduarekin bat etorriko da.

**II. eranskina: Proiektuaren  
deskripzio-memoria**

**Ezkaera zk.** \_\_\_\_\_

(Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiak emandako zenbakia).

**Erakundearen izen osoa**

\_\_\_\_\_

**Izen laburtua**

\_\_\_\_\_

**Kalea eta zenbakia**

\_\_\_\_\_

**P.K.**

\_\_\_\_\_

**Herria**

\_\_\_\_\_

**Herrialdea**

\_\_\_\_\_

**Telefonoa**

\_\_\_\_\_

**Faxa**

\_\_\_\_\_

**Helbide elektronikoa**

\_\_\_\_\_

**Interneteko webgunea**

\_\_\_\_\_

**Legezko ordezkariaren, harremanetarako pertsonaren eta  
proiektuko zuzendariaren izenak eta eginkizunak<sup>6</sup>:**

**Legezko ordezkaria**

\_\_\_\_\_

**Harremanetarako**

\_\_\_\_\_

**Proiektuko zuzendaria**

\_\_\_\_\_

<sup>6</sup> Legezko ordezkaria da entitatea ordezkatzeko gaitasun juridikoa duen pertsona.  
Harremanetarako pertsona da hautapen prozesuan harremanetan jartzeko prest dagoena.  
Proiektuaren zuzendaria da proiektuaren koordinazio teknikoaz arduratuko den pertsona

Honako hauek dira sorkuntza eta/edo ikerketa egonaldietarako Ebaluazio Batzordeak ebaluatuko dituen irizpideak:

01. Proiektuaren balorazioa (50 puntu bitarte).
  - Proiektuaren memoria (metodologia, helburuak, lan kronograma, egonaldiko azken erakusketarako proposamena...).
  - Proiektuaren alderdi artistikoa (kalitatea, berrikuntza, sorkuntza, originaltasuna...).
  - Proiektuaren alderdi sozial eta kulturala.
  - Proiektuaren eta 2023ko DNA Programaren helburuen arteko koherentzia.
  - Proiektuaren 2024ko estreinaldiaren eta zabalkuntzaren plangintza. Proiektu hauetan 25 puntu gutxienez lortu beharko dituzte atal honetan hautatuak izateko.
  
02. Bitartekaritza proiektuaren balorazioa (25 puntu bitarte).


Memorian sartutako bitartekaritza proiektuan, publikoari dantza garaikidea gerturatzeko ekintza bat edo batzuk aurreikusten ahal dira.
  
03. Proiektuaren bideragarritasuna eta koherentzia ekonomikoa (15 puntu gehienez).

Oro har, proiektua III. eranskinean jasotako ereduko zehaztapenei jarraikiz aurkeztu beharko da.
  
04. Programan profesional artistiko eta teknikoek parte hartzearen balorazioa (10 puntu bitarte).

Konpainian bertan lan egiten duten profesionalak eta/edo proiektu horretarako berariaz kontratatuak izan direnak, talde artistikoaren eta talde teknikoaren barruan: 2 puntu taldekide bakoitzeko.

**Nafarroako Gobernua. Kultura eta Kirol Departamentua**






### III. Eranskina: bideragarritasun eta koherentzia ekonomikoa

Aurreikusitako gastuen xehetasunak, banaka

#### Gastuak



|  | BEZ-IK gabe | BEZ-A barne |
|--|-------------|-------------|
| Langileak: proiekturako kontratatatuak                               |             |             |
| Egoitza  |             |             |
| Ekipoak eta jarduera egiteko bitarteko materialak alokatzeko gastuak |             |             |
| Eszenografia   |             |             |
| Argia eta soinua   |             |             |
| Jantziteria eta atrezzoak egitea                                     |             |             |
| Talde artistikoaren eta antzezle taldearen sariak                    |             |             |
| Mantenua (gehienez ere 20 €-ko bazkaria edo afaria/pertsona)*        |             |             |
| Ostatuak*  |             |             |
| Joan-etorriak (0,34 km)*   |             |             |
| Beste batzuk   |             |             |
|  |             |             |
|  |             |             |
| <b>Guztira</b>   |             |             |

\*Mantenua, ostatua eta joan-etorriak: Nafarroako Gobernuaren Erabakia, 2012ko azaroaren 28koa (2012ko 244. NAO, abenduaren 17koa).

Nafarroako Gobernua. Kultura eta Kirol Departamentua

III. Eranskina: bideragarritasun eta koherentzia ekonomikoa

Proiektuaren kargura ordaindutako langileen zerrenda

| Izen-deiturak | K/P (*) | Lanen izaera/lanpostuaren izena | Aurreikusitako lanegun/lanordu kopurua (**) | Eguneko/orduko tarifa (**) eurotan | Guztira (eurotan) |
|---------------|---------|---------------------------------|---|------------------------------------|-------------------|
|               |         |                                 |   |                                    |                   |
|               |         |                                 |   |                                    |                   |
|               |         |                                 |   |                                    |                   |
|               |         |                                 |   |                                    |                   |
|               |         |                                 |   |                                    |                   |
|               |         |                                 |   |                                    |                   |
|               |         |                                 |   |                                    |                   |
|               |         |                                 |   |                                    |                   |
|               |         |                                 |   |                                    |                   |
|               |         |                                 |   |                                    |                   |
|               |         |                                 |   |                                    |                   |
|               |         |                                 |   |                                    |                   |
|               |         |                                 |   |                                    |                   |
|               |         |                                 |   |                                    |                   |
|               |         |                                 |   |                                    |                   |
|               |         |                                 |   |                                    |                   |
|               |         |                                 |   |                                    |                   |
|               |         |                                 |   |                                    |                   |

**Guztira**

(\*) Langile kontratatuak: K, Langile propioak: P.  
 (\*\*) Entitateari hobeki egokitzen zaiona hautatu.